


## Nola adierazi?

Garraio publikoan goazela, nork ez du noizbait ondokoaren mugikorra begiratu? Sekuentzia honetan Ylenia Benito kazetariak bizitako egoera xeibre bat kontatzen da.

Hau egin dezakezu:

- Audioa entzun eta laburpen zuzena aukeratu.
- Zure hitzekin adierazi.
- Hipotesiak egin.
- Idazlana idatzi.



Irudia: Vladimir López, Pixabay

### 1. Laburpen egokiak



Audioa entzun.



Audioa entzun ondoren erabaki tarte bakoitzari dagokion laburpen zuzena zein den.

#### 1. tarte

- Topoko neskak Yleniaren ondoan eserita zegoela, mutilari harremana eteteko mezua bidali zion.
- Yleniak neskaren xuxurlak entzun arte ez zuen ulertzen zertan ari zen.
- Yleniak bere ondoan eserita zegoen neskak jasotako mezua entzun zuen.

2. tartea

- a) Topoko neska erabat bere onetik aterata zegoen, oso gaizki pasatzen ari zen.
- b) Esatariak ezin zuen Topoan bizitzen ari zen egoera jasan.
- c) Neskaren ustez, harremana okertu izanaren errua mutilarena zen eta haserre zegoen horregatik.

3. tartea

- a) Emakume batek errieta egin ondoren neska, erabat lotsatuta eta hitz bakar bat esan gabe, Galtzarabordako geltokian jaitsi zen.
- b) Yleniak neskari audio hori ez bidaltzeko aholkatu zion: damutu egingo zela.
- c) Emakume batek topotik jaitsi baino lehen gomendio bat egin zion neskari.

Talde handian zuzendu.

## 2. Zure hitzekin adierazi

Audioa entzun ondoren adierazi zure hitzekin azpimarratuta dauden hitzen bidez zer esan nahi izan den. Behar izanez gero, audioa berriro entzun dezakezu.

- Orduan, idazteari utzi zion.
- *Adib: Orduan, ez zuen ezer gehiago idatzi.*



- Zure ondoan eserita zegoela bidali zion harremana apurtzeko audio hori?

- \_\_\_\_\_

- Behin eta berriz egin zuen audioa.

- \_\_\_\_\_

- Ni maitasun-kontuetan oso sentibera naiz.


- \_\_\_\_\_

- Galtzarabordan jaitsi zen izengabeko jainkosa hori.

- \_\_\_\_\_

### 3. Hipotesiak egin

Entzun duzun pasartea aintzat harturik, binaka, protagonisten jokaerari buruzko hipotesiak egin.



Irudia: Pixabay

Galdera hauek baliagarri izango zaizkizu:

- Zergatik uste duzu neskak horrela jokatzeko duela?
- Zergatik ez dio beste pertsonari deitu nahi?
- Topotik atera den emakumeak zergatik gomendatu dio deitzeko?

Adib:



Nire ustez, Topotik jaitsi den emakumea heldua da eta, seguruenik, gaztetan ez zen ausartu bere gustuko pertsonari maite zuela esaten. Neskarekin identifikatuta sentitu da.

Hori uste duzu?

Irudia: Eva Michálková, Pixabay

- Nire ustez...
- Nik uste dut, esango nuke, iruditzen zait... -(e)LA.
- Entzundakoaren arabera...
- Ez zait iruditzen, ez dut uste, ez nuke esango ... (e)NIK.
- Ez nago batere ziur baina...
- Seguruenik, ziurrenik, beharbada, agian...

Talde handian azaldu bikoteka egin duzuen hipotesia.

Besteen hipotesiak entzun ondoren, sinesgarriena aukeratu.



Topoko neskaren istorioa nola amaitzen den jakin nahi duzu? Entzun bigarren audioa.




<https://bit.ly/42BID0L>

## 4. Zer gustatuko litzaizuke entseatzea?

Topoko neska bere bikotea uzteko zer esan entseatzen ari zen. Normalki urduri jartzen gaituzten momentuak entseatzen ditugu. Pentsatu egoera bat eta idatzi zer esango zenukeen (gutxienez 100 hitz).

*Hona zenbait egoera-adibide:*

- Gonbidapen bati uko egin.
- Auzoko bileran zerbait planteatu
- Lana utziko duzula jakinarazi.
- Sari bat jaso duzu eta hitz batzuk esan behar dituzu.
- Norbaiti berri txar bat eman....



*Irudia: Pixabay*

Bidali idazlana zure irakasleari.



Ondoren, idatziz entseatu duzuna audio batean grabatu eta bidali irakasleari.

# ERANTZUNAK

## 1. Hiru hipotesiak

1. tartea	B
2. tartea	B
3. tartea	C

## 2. Zure hitzekin adierazi

*Adib:*

- Zure ondoan eserita zegoela bidali zion harremana apurtzeko audio hori?
- Zure ondoan eserita zegoenean bidali zion harremanari amaiera emateko mezua?

- Behin eta berriz egin zuen audioa.
- Behin baino gehiagotan grabatu zuen mezua.

- Ni maitasun-kontuetan oso sentibera naiz.
- Maitasunarekin zerikusia duten gaiekin oso sentibera naiz.

- Galtzarabordan jaitsi zen izengabeko jainkosa hori.
- Galtzarabordako geltokian jaitsi zen emakume ezezagun hori.

### HIZTEGI LAGUNGARRIA

- **Lehengo astean, lanetik bueltan.** Pasa den astean, lana amaitu ondoren.
- **Baina hala izan behar du.** Ez dago beste aukerarik: egoera hori daukagu.
- **Ba, hortxe nintzela.** Egoera horretan nengoen unean.
- **Izengabeko jainkosa hori.** Izena jartzen ez diogun emakume hura, egoera bikain gainditu zuena.

## TRANSKRIPZIOAK (00:02:14 eta 00:01:05)

**Kazetaria:** Ylenia Benito, arratsalde on!

**Ylenia:** Kaixo!

**Kazetaria:** Gaur zer kontatu nahi diguzu?

**Ylenia:** Ba, lehengo astean, lanetik bueltan, topoan, ondoko eserlekuan, neska gazte bat eseri zen.

**Kazetaria:** Bai...

**Ylenia:** Lehendabizi, Whatsappe(a)n mezu bat idazten ari zela ikusi nuen.

**Kazetaria:** Bai...

**Ylenia:** Noski, ez nuen irakurtzen zer jartzen zuen, baina bai konturatu nintzen behin eta berriz idatzi eta borratzen zuela. Orduan, idazteari utzi zion eta audio bat bidaltzea erabaki zuen. Baxu-baxu hitz egiten zuen, baina, orain bai, zer esaten zuen bai ulertzen nuen: mutila utzi nahi zuen! Audio batekin? Bai.

**Kazetaria:** What? Kar, kar. Barkatu?

**Ylenia:** Bai.

**Kazetaria:** Baina zure ondoan eserita zegoela bidali zion harremana apurtzeko audio hori?

**Ylenia:** Ez zuen bidali. Behin eta berriz egin zuen audioa grabatu, berriz entzun, borratu. Eta berriz grabatu, berriz entzun, borratu... Horrela ibili zen ez dakit, ba, hamar minutu? Ez da zure errua, nirea ezta ere, baina hala izan behar du... Laster beste batekin zoriontsu izango zara! Denbora behar dudala uste dut. Asko maite, maite, asko maite zaitut, baina... Bueno, imajinatzen duzu, ezta?

**Kazetaria:** Bai...

**Ylenia:** Ba, hamar segundutako (segundoko) audioa zen, baina, buff, nik oso gaizki pasa nuen. Badakizue ni maitasun-kontuetan oso sentibera naizela. Denbora guztian nire buruan zera zegoen: audio hori ez bidaltzea (bidaltzeko) esan beharko nioke? Ze, damutuko da, ez? Aurrerantzean gauzak horrela egiten ez direla ikasiko du edo konturatuko da eta ja berandu izango da. Beraz, Euskadi, mesedez, ez dira mezuak ezta audioak (ere) bidaltzen norbait uzteko. Ez, mesedez! Ba, hortxe nintzela, superurduri e, eta buruari bueltaka, bapatean (bat-batean) gertu zegoen emakume bat neskarengana hurbildu zen eta zera esan zion: Deituiozu!

**Kazetaria:** Aaaaaaaaaaaaa... Kar, kar.

**Ylenia:** Hitz bakarra eta alde egin zuen, e! Galtzarabordan jaitsi zen izengabeko jainkosa hori. Txalo bat mesedez!

-----  
**Ylenia:** Topoko neskaren istorioa nola amaitzen den jakin nahi duzu(t)e?

**Denak:** Noski!

**Ylenia:** Orain bai. Deituiozu esan zion emakumeak, bai? Ba, neska harrituta gelditu zen eta niregana begiratu zuen. Entsaiazen (entseatzen) ari naiz esan zidan orduan.

**Kazetaria:** Ui...

**Ylenia:** Eta, ni: Nola? Entsaiazen? Baina aktorea zara? Eta berak: Ez, ez, nire mutila utzi nahi dut, baina zer esan nahi diodan entsaiazen ari naiz. Audioa grabatzen dut nire burua entzuteko. Horrela, arratsaldean ongi aterako zaidala uste dut.

**Kazetaria:** Uau...

**Ylenia:** Hau bai ez nuela espero, e! Imajinatzen gure bizitzako momentuak entsaiaitzeko aukera izatea? Zer gustatuko litzaizueke entsaiaitzea?